

IKASTETXEA	Garralda DBHI		
IZENBURUA	Haize epelen bila	MAILA	DBH 2
IRAKASLEA	David Cabello eta Ainhoa Mendia	IKASGAIA	Natur Zientziak

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

1. ATAZA

TESTUA



> sorginzilo

Haize epelen bila

Larrazkena heldu da eta harekin batera etxetik alde egiteko garaia milaka eta milaka hegaztirentzat. Baina zeintzuk dira migratzaileak? Zergatik egite dute milaka kilometroko bidaia luzea? Nondik igarotzen dira? Ekialde eremua Europako hegazti migratzaileen pasabide inportanteenetarikoak denez, gai hau jorratu nahi izan dugu. Horretarako Orreaga Retegi, Orreagako Gurelur elkartearen zentroko biologoaren azalpenak izan ditugu lagun.

Hegazti migratzaileak

Ez dute paperik. Ez erresidentzia baimenik, ez eta pasaporterik ere. Zeruko biztanle hauek Europa zaharreko zein Afrikako iparraldeko estatu mugak libre eta (ia) oztoporik gabe igarotzen dituzten azken (lehen) izakiak dira. Uztailen hasi eta azarora bitarte, urtero milaka hegazti bidaia luze eta neketsua abiatzeko prestatzen dira.

Europako ipar eta erdialdean, udako eguraldi goxoa larrazkeneko hotzari lekua uzten dion heinean, hainbat animalia eta landareren bizi zikloa itzali egiten da. Hegaztien artean badira hotzari egokitu edota elikagai berriak bilatzeko gai direnak. Hauek ez dira etxetik mugituko, eta negu osoa igaroko dute sorlekuan. Udaberriarekin batera lurra esnatzen denean hantxe segituko dute berriz.

Beste batzuk ordea, hegoaldeko epeltasuna bilatuko dute eta, urtero-urtero, gizakiok pasa deitzen dugun bidaia luzea bezain arrisku-suan murgilduko dira. Azken hauei hegazti migratzaileak deitzen zaie. Negua pasatakoan, udaberriko lehen eguzki-izpi beroekin batera etxerako bidea hartuko dute berriz, iparraldera kasu honetan, kontrapasan.



Zeintzuk dira migratzen diren espezieak?

Bidaiaien espezie zerrenda luzea da oso. Gure eskualdean ikusten ahal ditugun harraparien artean miruak, arranoak, mirotzak, gabiraiak, belatzak edota sai zuriak aipa daitezke. Eta beharbada ikusten errazago direnak, zikoinak, kurriloak, usoak, enarak edota antzarak.

Nondik nora?

Iparretik hegorako bidaia honetan hainbat bide daude, jatorriaren arabera.

Mapa bat hartuko bagenu, Italia edota Greziako lurraldea erabiliko dute Mediterraneo itsasoa zeharkatzeko Errusiatik eta Europako ekialdetik datozen hegaztiak.

Gure artean ematen den kasuan, Eskandinavia hegoaldea, Polonia eta Europa erdialdea izango genuke migrazio honen abiapuntu. Itsas-koridoreak alde batera utzita, lurralde horietan bizi diren hegaztiak Pirinioak zeharkatu behar izaten dituzte, eta horretarako Nafarroako mendi baxuak egokiak dira oso. Behin Pirinioak gaindituta, Iberiar penintsula igaro eta Sahara edota Sahara hegoaldera abiatuko dira.

Azken urteotan baina, klima aldaketa dela eta, gero eta iparrerago geratzen diren susmoa dago.

Migrazioa hegaztien kode genetikoan dago markatuta. Garaia iristen, nolabaiteko erloju biologiko batek abisua ematen die, alde egiteko tenorea heldu zaiela, alegia.

Hala, lehendabiziko urtean, eguzkia eta ilargia izanen dute orientazio lagun. Gerora bidea buruz ikasiko dute eta soilik oztoporen batek eragotziko die urtero bide bera hartzea. Ehiza, haize parkeak eta tentsio handiko lineak izaten dira oztopo nagusiak.

Behatokiak Ekialde eremuan

Hegazti migratzaileak behatzea gero eta interes handiagoa pizten duen gaia da. Horretaz gozatu nahi duenak badu aukera gure artean. Lindux da Nafarroako pasabiderik inportanteena eta Ibañetako (Orreaga) Gurelur elkartearen Behatokia zabalik dago uztailaren 1etik urriaren 31 arte. Bertan azalpen zuzen eta zehatzak jasoko ditugu eta tresneria egokia aurkituko burua lurretik altxa eta zeruko bidaia-rien ametsekin bat egiteko.

JATORRIA	
EGILEA	Sorginzilo
IZENBURUA	Haize epelen bila
ARGITALETXEA/Webgunea	Kebenko Kultur Elkartea
URTEA	2009ko udazkena
ORRIALDEA (K)	22. eta 23. orrialdeak
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Mistoa
MOTA	Azalpenezkoa
ERABILERA	Pribatua

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea

Edukiari buruzko ezagutzak

Norberak pentsatu beharko du migratze prozesu hori zergatik ematen den. Orduan testuaren edukiari buruzko galderak botako zaizkie; inoiz hegazti multzorik pasatzen ikusi duten edo ez galdetuko zaie. Urtearen zein arotan ikusi duten, zein baldintza klimatikotan (hego haizea, ipar haizea dagoenean, zero garbiko egunetan, ekaitza datorrela sumatzen denean, tenperaturaren aldaketan iragartzen direnean...).

Hiztegiari buruzko ezagutzak

ere islatu beharko dituzte, migratzaile diren hegaztien izenik ezagutzen duten proposatuz.

Irakurri aurretiko hipotesiak egitea, izenburua, formatua, ilustrazioak... aintzat hartuz.

Testuan ageri diren argazkiak aztertu eta gaia zein izan daitekeen pentsatu. Irudietan hegaztiak hegan ageri direnez, hegaztien bidaien inguruko informazioa jasotzen dela ondorioztatuko dute.

IRAKURRI BITARTEAN

Lexikoa argitzeko estrategia materialak eta inferentziak

Ezagutzen ez dituzten hitzak azpimarra ditzatela eskatuko diegu (kontrapasa, kode genetikoa...). Esanahia testuinguruan ondorioztatzeko ahalegina egin beharko dute. Bestela, hiztegia eskura utziko dugu

Inferentziak egitea

-Mundu mapa (Europa, Asia eta Afrika) begi bistan izanen dute, irakurri bitartean mapa

begiratu eta testuan dagoena hobeki ulertzeko.

IRAKURRI ONDOREN

Inferentziak egitea

Ibañetako pasoaren ezaugarri geografikoak gogoratu eta behatokia bertan jartzea egokia ote den ondorioztatuko dute.

Maiz Ibañetatik ibilbidea egiten dutenez, mendiz inguratuta dagoela ezagutzen dute eta hegaztientzat paso naturala dela ondoriozta daiteke. Beraz, bertan behatokia jartzea guztiz egokia da.

Gaia eta ideia nagusiak identifikatzeko estrategiak

Irakurgaiaren edukia jasotzen duen eskema egin dezatela proposatuko diegu. Testuan agertzen diren atalak ezberdindu ditzatela bakoitzean agertzen den informazioa esaldi batean laburtuz:

- Hegazti migratzaileak

Migrazioa zer den eta noiz ematen den argitzen da bertan.

- Zeintzuk dira migratzen diren espezieak?

Hegazti migratzaile ezberdinen izenak jasotzen dira.

- Nondik nora?

Migrazioetan erabili ohi diren bideak zehazten ditu testu honek.

- Behatokiak ekialde eremuan

Migrazioa behatu nahi izanez gero, nora joan eta noiz joan aipatzen da bertan.